BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1082

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 18koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bitartez, zerrendan ageri diren finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten da, guztiak ere Bermeo eta Busturia udalerrietan, Bermeo-Matxitxako (8. zirkuitua) 13,2 kV-ko Erdi Tentsioko Aireko linearen zuhaitz-zerrenda indartu, eguneratu eta zabaltzeko proiektuak eraginpean harturikoak, eskatzailea Iberdrola Distribución Eléctrica, SA delarik.

Erref.: L-7328 –AS-AIA.

Esp.: AT-H-2009-097.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2010eko irailaren 27koa Ebazpenak aipatutako instalazio elektrikoa onuragarria dela aitortu zuen.

Arlo elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluak xedatutakoaren arabera, onuragarria dela aitortuz gero, ezinbestekoa izango da eragindako ondasunak okupatzea edo eragindako eskubideak eskuratzea. Horrez gain, aitorpen horrek premiazko okupazioa ere badakar, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Horregatik, eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak (1954-12-17ko EAO) xedatutakoa betetzeko, Lurralde Zuzendaritzak ebatzi du dei egitea eragindako eskubide eta ondasunen jabe eta titularrei Bermeo eta Busturia udaletara etor daitezen bilera batera; izan ere, udal horretan daude eragindako ondasunak. Bilera horretan eragindako ondasunak okupatu aurreko aktak egingo dira eta, hala balegokio, behin betiko okupazioa.

Bestalde, bilerara agertu beharko dira interesdunak eta eragindako ondasunen gainean edozein eskubide edo interesen tituludunak edo, bestela, haien ordezkariak joan ahal izango dira. Ordezkariak joanez gero, behar bezala baimendutako ordezkariak izan beharko dira. Bilerara titularitatea egiaztatzeko agiriak eta kontribuzioaren azkeneko ordainagiria eraman beharko dira. Gainera, aditu edo notario batekin ere joan ahal izango dira, nahi izanez gero.

Okupatu aurreko aktak honekin batera doan zerrendan jarritako egun eta tokietan egingo dira. Horren berri emateko, zitazio-zedula bana bidaliko zaio titular bakoitzari, eta bertan adieraziko zaio bileraren tokia, eguna eta ordua. Horrez gain, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako gainontzeko iragarkiak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen erregelamenduko 56.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, argitaratutako zerrendan agertu ez diren interesatuek edo eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek aukera dute idatziz edozein alegazio aurkezteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritza honetan Bilboko Concha Jenerala kaleko 23 zenbakiko 5. solairuan, Alegazioak aurkezteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da, eta alegazioen helburua da eragindako eskubide eta ondasunen zerrendan egindako akatsak zuzentzea.

Aditzera ematen da, halaber, iragarki honek jakinarazpenaren balioa izango duela identifikatu ezin izan diren interesatuentzat, ukitutako ondare eta eskubideen titular ezezagunentzat eta helbide ezezaguna dutenentzat, hala ezartzen baitu azaroaren 30eko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak– 59.4 artikuluan, eta hala agintzen baita Jabetza Nahitaez kentzeko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan.

Bilbao, 2012ko urtarrilaren 18a.

Lurralde ordezkaria,
AINTZANE IZAGUIRRE ETXEBERRIA.

ERASKINA

Aipatzen den zerrenda.

Bermeo eta Busturia udalerrietan Bermeo-Matxitxako (8. zirkuitua) 13,2 kv-ko erdi tentsioko aireko linearen zuhaitz-zerrenda indartu, eguneratu eta zabaltzea.

Erref: L-7328 - AT-H-2009-097 AS-AIA

Katastroko datuak			Titularra	Hila	Eguna	Ordua	Udaletxea
Lursailaren zenbakia planoaren arabera	Poligonoa	Lursaila					
1	4	122	Mendiguren Alegria, Jesus	Apirila	16	9:00	Bermeo
3	4	304	Mendizabal Lezaola, Begoña	Apirila	16	9:25	Bermeo
7	4	281	Llantada Ruiz, Garikoitz	Apirila	16	9:50	Bermeo
9	8	90	Lejarraga Azcarreta, Margarita	Apirila	16	10:15	Bermeo
10 11	1 1	385 386	Achicallende Tellechea, Antonio	Apirila	16	10:40	Bermeo
13 14	9 9	16 17	Santiago Villarreal, M.ª Carmen Ituarte Santiago, Iker	Apirila	16	11:30	Bermeo
19	9	53	Olano Amparan, Tiburcio	Apirila	16	11:55	Bermeo
20 22	9 9	96 31	Santamaria Orue, M.ª Milagros	Apirila	16	12:20	Bermeo
21	9	30	Boyar Muniategui, Pedro Arrate Leztiur, Amalia Luisa Boyar Arrate, Markel	Apirila	16	12:45	Bermeo
23	9	93	Ganalar Y Zabale, S.L.	Apirila	16	13:10	Bermeo
24 25	9 9	59 60	Lecumberri Thomas, Ignacio	Apirila	16	13:35	Bermeo

Katastroko datuak			Titularra	Hila	Eguna	Ordua	Udaletxea
Lursailaren zenbakia planoaren arabera	Poligonoa	Lursaila					
26	3	24	Ganalar, S.A.T.	Apirila	18	9:00	Busturia
27	2	70	Titular Desconocido (Representante: Zenon Telletxea, Jose Gabriel)	Apirila	18	9:30	Busturia
29	2	54	Basterrechea Ancin, Javier	Apirila	18	10:00	Busturia
30	2	41	Guezuraga Basterrechea, Ramon	Apirila	18	10:30	Busturia
31	2	36	Bilbao Azqueta, Jesusa	Apirila	18	11:30	Busturia
32	2	35	Inchausti Guezuraga, Julian	Apirila	18	12:00	Busturia
34	2	30	Bilbao Amantegui, Antonia	Apirila	18	12:30	Busturia
35	2	32	Laucirica, Francisco	Apirila	18	13:00	Busturia
38 39	16 16	149 81	Iturraran Urquiza, Dionisio	Apirila	18	13:30	Busturia